

THE UNIVERSITY OF CHICAGO
DEPARTMENT OF CHEMISTRY
5800 S. UNIVERSITY AVENUE
CHICAGO, ILLINOIS 60637

RESEARCH REPORT
NO. 1000
PUBLISHED BY THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS
CHICAGO, ILLINOIS 60637
1968

BY
J. H. GOLDSTEIN
AND
R. L. SWEET

DEPARTMENT OF CHEMISTRY
UNIVERSITY OF CHICAGO
5800 S. UNIVERSITY AVENUE
CHICAGO, ILLINOIS 60637

RESEARCH REPORT
NO. 1000
PUBLISHED BY THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS
CHICAGO, ILLINOIS 60637
1968

GURUTZEKO JOAN DONEA, BERE BOKAZIOAREN LORRATZEAN

Barne-deia eta bere dohainen erabilera

Sarrera

Joan Gurutzekoa bilaketaren Santutzat har genezake. Gizakiak bere helburu, bere leku, bere Jainko eta Maitearen bila inoiz izan duen burrukarik ikusgarrien eta larrietarikoaren aurrez aurre gaude. Horrela, haren bizitza aztertuz gero, benetan harrigarri gertatuko zaigu hark egindako bidea: gertakari, oztopo eta etorkizunaren aurrean hartzen dituen erabakiak ulertezinak eta arriskutsuegiak ere iruditzen zaizkigu; ustez arrazoiz kontrakoak eta bere nortasunaren garapenaren aurka zioazenak.

Bere bizitzaren norabidearen bila egin zituen ekinahalak, bere bokazioari, hots, barneko deiari zintzo erantzutearren egindako burruka latzak, pertsonarik ausart eta adoretsuenetariko bihurtzen dute. Areago oraindik bere bokazioaren nondik norakoa berak ere ez zuela batere argi ikusten kontutan hartzen badugu. Burruka guztiz arrisku-tsu hori dela eta, bizitzaren norabidea bilatze orduan, eredu aparta bilakatzen da gaurko munduarentzat; norabiderik gabe itsumustuan ari den mundu honentzat bereziki, *Viktor E. Frankl*, psikiatriako irakasle bikain eta logoterapiaren sortzaileak, egungo gizajendearen gaitzik larriena, bizitzako norabiderik eza dela esaten bait du.

Baina oraindik bada azpimarratzekorik: bere bokazioaren lorratzean aurrera eta aurrera jo nahirik, une batzutan, Joaneke bere dohainei (kualitateei) eta, beraz, bere nortasunaren garapenari ere uko egiten diela dakusagu.

Guzti horregatik, idazlan honi, «bere bokazioaren lorratzean» jarri diogu izenburu bere lekuaeren bila, barmedeia (ez argia) entzutearen eta bere kualitateak garatzearen artean izan zuen etengabeko burruka latzagatik.

Santuaren nortasun eta bokazioaz agertzen dudan ikuspegiak berri edo original itxura izan dezake. Santuaren bizitza, bere bokazioaren bilaketa eta garapen lehiatsuaren ikuspegitik berraztertu nahi genduke.

Beste aldetik gizon hau, gorputzez txiki baina nortasunez handi, ulerpen edo ikuspegi ezberdinen ikusmiran izan da, ulerpen hauetariko batzuk irudi guztiz okerrekoa agertu digutelarik.

I. JARRERA BATZU ETA FUNTSEZKO IDEIAK ABIAPUNTUTZAT

Joanen bizitzaren unerik garrantzitsuenak aztertzen hasi aurretik, egoki izango da honako puntu hauei buruz orokorki zerbait azaltzea: haren erabakiak hartzeari buruz, ustez behintzat argitasun handirik gabe; haren barneko deiari jarraitzeari buruz; haren helburu eta porrotaren arrisku handitan sartzeari buruz, beti ere barne-eraginez jokatu bazuen ere.

1. Bilaketa arriskutsua

a. Joan Yepes-ek, haur, gaztetxo nahiz gizon heldu zela, noizbehinka zalantzak eta bilaketak berak zirikatutik, izukaitz jarraitzen dio bere barne-eraginari. Bere bizitzaren norabidea bilatzeko eraginari; bere burua osotzeko eraginari; bere dohainak (kualitateak) —maitasuna, bakardade emankorra...— ongi erabiltzeko eraginari. Baina Jainkoa bilatzeko barne-eraginari jarraitzen dio batez ere.

Joanen bizitza, une batzutan, larriduraz, ia tragikoa bailitzan agertzen da gure begitan; baina ez zen horrelakoa izan berarentzat. Bere dohain edo kualitate batzuren garapenari uko egiten diola ikusten badugu ere, beste dohain batzu garatzen ditu eta beti ere haziz doa; eta, beraz, haren bizitza beteagoa da, itxurazko gertakari larri horiek gorabehera. Laster ikusiko dugu hori: bere bizitzari esannahi bete emateko abagune apartak izanik, hots, bere kualitateei fruitu edo etekin ezin hobea ateratzeko egokierei uko egiten die une garrantzitsu batzutan. Hori da santuaren bizitzan eta bokazioan gauzarik itzelena, harrigarriena.

b. Gauza guztien gainetik, barneko deiari jarraitzen dio berak!

Esan dezadan lehen-lehenik neure eritzia: ulertezinak edo itxuraz aldrebesak diren erabakien aurrean, bide zuzenetik ez aldentzeko, Joan bere logika zorrotzak eta Jainkoaren atzamar gidariak salbatzen dute.

Joan bera beratara ibiltzekoa eta askatasun zalea da. Eta askatasun honi helduko dio, kontrakoak diruditen jokabide guztien artean; *aske izan, bilaketan aurrera egiteko*.

Zerbait erabaki beharreko uneren bat hel dadinean, hau da, bere kualitateen arabera bizitzari zentzua emateko aukera bat edo beste egin beharra duenean, askatasun inbidiagarri baten jabe da. Ez dago ezeri ez inori loturik. Bere indar eta kualitate batzuren garapenari uko egiteko ere prest dago, une hartan komenigarriago diren beste batzu garatzeko. Adiskide eta ongileen borondatea kontutan izan gabe erabakitzeko ere guztiz aske ikusten du bere burua. Aske, Ordena batetan sartzeko nahiz handik irtetzeko (kontzientziako kezkarik gabe). Aske, pertsona ospetsuen aurrean, bai santuen aurrean, bai agintea maite duten haundien aurrean. Aske, Jainkoagatik berak hala nahita sufrimentuak eramateko eta aske, haietatik bere burua askatzeko...

Baldintzarik gabekoa, behar-beharrezkoa Jainkoa du soil-soilik. Jainkoarekin, bere Maitearekin elkartzea ezinbestekoa du; eta beraz, erakargarri egiten zaizkion balore batzu lantzeko barruko deiari jarraitzea ere bai nolabait.

c. Joaneke jomuga bat, helburu bat du: barne-eraginaren deiari jarraitzea; bere bizitzari betetasuna ematen diona egia bihurtzea; eta haren bizitzaren muin-muina, barrukoetarik barrukoena Jainkoa da. Bere Maitearen bila dihardu. Baina bilaketa honetan bada iluntasunik ere. Horregatik Joanen bokazioa ez da lau-laua, arazoz betea baizik. Nola aurkitu Jainko hori? Zeintzuk dira horretarako bideak? Bere dohainak, kualitateak, sortzetik zuen izaera bete-betean garatzea?

Gizakiekin zituen harremani dagokienez, hainbat auzi izango ditu aurrez aurre; lortzen ote du Jainkoaren ezinbesteko bilaketa horretan eta bere kualitateak lantze horretan, gizakien gainetik ere garaile ateratzea? Ikus dezagun.

2. Bere bokazioari jarraitzen eta norberekeriarekin burrukan (gogo eta buruosanaren oinarritzat apaltasuna)

Argi dago, Joaneke bere helburua lortzekotan, norberekeriaren aurka edo eta norberekeria horrek hartzen dituen itxuren eta hark duen eragin gaiztoaren aurka burrukatu beharko zuela. Eta burruka horretarako baliabiderik egokientzat hauek ditu: bere buruaz ahaztea, beharrezko den sufrimendua jasatea, apaltasuna, berau delako askatasunbidea, indarra eta norbere burua eskaintzeko ahalmena.

Norbere buruaren estimu handiegiak, G. Thibon-ek dioenez, pertsonaren eta munduaren arteko berezko erlazioen haustura dakar. Joanen ustez, norberekeriaren aurka burrukatzea, norbere buruaren jabe bihurtzea da. Norberekeria, «ni eta ni hutsa» alde batera utzi behar da eta horren ordeztan norbere buruaz ahaztu, besteen artean galdu. Norberekeriak, arima, bere kuskua barnean kiribildu, isolatu egiten du, eta giza harremanetarako eta maitasunerako gaitasunik gabe utzi. Beraz, norberekeria hori gainditzen duena, bere burua eskaintzeko eta zerbitzatzeko gai da. Apala, bereaz

husturik, besteekiko harremanetarako gertu-gertu dago. Sakrifizioa eta eskaintza
~~ondurantz~~ soilik bihurtzen dira benetakoko erregalia.

Joan Gurutzekoak bere buruaren jabe izan nahi zuen eta norberekeria gaindituz, bakardade emankorrean lanari ekin zion. Bene-benetan burukatzen du: ez berezko izaeraren aurka, izaera hori lagun duela baizik, egiaz eta bere burua ezagutuz, hots, *apaltasunez*. Apaltasuna nork bere burua ezagutzeko giltza da eta gerta daitezkeen izpirituaeren nahasketa eta gaitzen aurka bitartekorik onena.

S. Joan Gurutzekoarengan, Nietzsche-rengan bezalaxe, egiaren eta benetakotasunaren irrika nabari da. Biek burukatzen dute faltsukeriaren eta amarrukeriaren aurka. Nietzsche-rengan, berriz, bere buruaren ase ezineko bilaketa nabari da, eta azken batez horrek darama hondamendira. Horregatik gorroto ditu gauzak, helburuak. S. Joanez, ordea, bere burua ahaztera jotzen du, benetan nahi duen gauza bakarra, bere helburua lortzeko; hau da, pertsona baten bila dihardu, bere Maitearen, hots, Jainkoaren bila. Eta hura aurkitutakoan, haregan murgiltzen da, bere burua haren baitan zeharo galduz, ezkutatuz. Bi pertsona historiko hauengan zerikusi handia dute «Niak» eta «Ezerezak». Nietzsche «Ni»aren alde ari da soilik, ezerezaren hondamendian amildu arte. Joanez, berriz, beretzat «ezereza» hautatuz, hots, bere buruaren ukapen bidetik, absolutora iristea lortu du. Apaltasunak zabaldu zizkion begiak munduko balioetarako, eta horrela gauzen gainetik dagoen jaun bihurtzen da.

G. Thibon-ek santurik ertzekoen edo punttakoentzat du Joan Gurutzekoa (ez du gogorrena edo zorrotzena zenik esan nahi). Nietzsche-k, bere buruaz, ertz-etzekoaren magia, lilura zuela diosku. Baina norberekeriaren esparru hertsia eta mugatu horretatik irtetzerik ez du lortzen. Hortxe gelditzen da betiko katibu.

Nietzsche eta Joan, biak ditugu bakoitza bere aldetik ibiltzekoak eta bakardade zaleak; biek nahi lukete edozein loturatatik aske bizitzea. Joanez lortua zuen Nietzsche-k irrika biziz desiratzen zuen askatasun hori. Joanez askatasunez hartzen zituen bere erabakiak, ingurukoek zer esango begira egon gabe, inoren mende egon gabe.

Guzti hau harrokeriaren adierazpena ote da? Nola iraun dezake tentuan Joanez, bere ahalbideei, bere bizitzari zentzu bete-betea emateko zituen aukerei, bere kua-litatei uko egiten badie? Azaleko edo itxurazko porrot honek, bene-benetako eta barruko garaipenera darama; maitasunagatik galtzaile izatea onartzen duenak, *norberekeriaren* aurka garaipenik handiena lortzen duelako.

Apala, its, gizon sendoa bere kemen eta eskaintze-adorez beterik dago; halakoak, emaitza onurakorra izango dela jakin gabe ere, aienatzeko eta arriskuan sartzeko adorea du. Handizaleak, harroak ere (adu ausardiarik. Baina norberekeria ez du sekula ere arriskutan jartzen; hori barru-barruan gordetzen du, hori galtzea harentzat gehiegizkoa litzateke eta. Harroputza ez da bere burua eskaintzeko gauza eta, beraz, ezta bere burua arriskuan jartzeko ere. Apalak, ordea, ziurra ez denerako ere ausardia edo adorea du; itxaropena, uste ona (konfidantza) du.

Norberekeriaren aurkako burruka honetan, apaltasunaren bidez irteten da Joan garaile. Egian oinarritutako apaltasuna da, izpirituaren gaitzak sendatzen dituen, sendoen birtutea (apaltasunak ez bait du zerikusirik morrontzarekin; norbait sendoa denean, zerbitzeko gertu dago), bere burua eskaini eta maitatzeko gai egiten duen apaltasuna. Harroputzak bere jabetza besterik ez du gogoan eta horrela benetako maitasuna desegin egiten du, benetako maitasunak ez bait du onartzen norberekeriarik. Hark ez du maitatzen; guztiaz jabetu nahi du, guztia bere mende eduki. Apalak eta maitaleak, ordea, maiteari askatasuna uzten diote. Haiiek inori zerbitzen, atsegin ematen aritzen direnez gero, guztiaren jaun eta jabe dira, zerbitzeko eta maitatzeko aske direlako.

Luze ihardun dut apaltasunari buruz, bere lekua bilatzeko, barruko deiari jarraitzeko, erabakiak hartzeko oso garrantzitsua delako Joanengan.

II. JOANEN BIZITZAKO UNERIK GARRANTZITSUENAK

Orain Santuaren bizitzako unerik garrantzitsuenak agertuko ditugu. Joanen arazo pertsonalak giza kolorez adierazten saiatuko gara, baina haren giza izaerari ezer kendu gabe, santuen bizitzak, historian zehar, gizakiak izango ez bailiran aztertu izan bait dira maiz, zoritxarrez.

Joanen bizitzako unerik erabakior, arriskutsu eta liluragarrienak haur edo gazte-txo zenekoak eta geroago Toledoko gartzelan, 35 urte zituela, izan zituen bizipen latzak dira. Barruko ahotsak, bere bokazioak norantz deitzen zion gordinki ikus daiteke hor...

Hain pobretasun gorrian bizi izandako haurtzarora alde batera utziz, eskola-adinekoa zen mutikoa gogoratuz hasiko gara.

1. Joan, Medina del Campo-n ikasle

10 urte zituen eta «Colegio de la Doctrina» delakoan zegoen. Barnetegi bat zen; izatez, umezurtzen etxe bat. Hemen behintzat ez zen gose izango. Idazten ikasten du, dotrina ere bai eta azkenez eskulanen ikasketari ekiten dio, geroago izan dezakeen bizibiderako prestatzeko. Era berean, mutikoak elizan meza erasotzen eta behartsu eta gaisoei laguntzen iharduten zuen.

12, 13, 14, 15 urte bete zituen era horretako bizimoduan. Arotz, jostun, tailagintza eta pintore lanetan egin zituen saioak, geroke bizimoduari aurre egiteko; baina guztietan egiten du «porrot». Zergatik? Haren biografo zen A. Crisógono-k, Frantzisko de Yepes Joanen anaiak dioena aipatuz, ahalegin guztiak egin arren, porrot egin zuela diosku (Frantziskoren hitzak, «*A ninguno dellos asentó, aunque era muy amigo de trabajar*», ez dut uste horrela ulertu behar direnik).

Joan buru eta bihotz lanbide hauetara emana egon eta guztietan porrot egitea ez da sinesten erraza ondorengo arrazoi hauengatik. Bi aitormen ditugu: bata, haren

anaiarena, adierazi dugunez; baina aitormen honetatik ezin atera daiteke Joan lanbide hauetakoren batetan ahalegindu zenik. Bestea, Frantzisko de Yepes-en aitore zen Belascorena da. Honela dio: «*se aplicó poco a ellos*». Honek ez al du adierazten Joanez ez zuela lanbide hauetan bihotzik jarri? Porrot horren zergatia ez du uste ezinari edo trebetasun ezari egotzi behar zaionik.

Areago oraindik, Joanez lanbide hauek ongi ikasi zituela dirudi, baina ez zuen nahi; bizibide gisa, bizimodua handik ateratzeko lanbide horietan ez zuen gogorik ezartzen. Barruko ahotsak, pixka bat ulergaitza izan arren, beste bide batetatik gidatzen zuen.

Jainkoak alferriko mirariak egiten dituenik ez dezagula uste. Eta hau ondorengo zeragatik diot: Joanez horrelako lanetarako gauza ez zelako porrot egin bazuen, nola liteke gero zurezko irudi txikiak tailatzea? Aurrez ikasi gabe nola egin dezake horrelakorik? Edo eta gurutzean jositako Kristoren irudiaz zer esan, pinturaren historian hain gauza harrigarria izanik, goitik beherako ikuspegia edo «txoriaren perspektiba» lehen aldiz kreatzen bait du? Nola egin zezakeen marrazki hori, lehen horretarako gaitasunik erakusten ez bazuen? Nola egin zitzakeen geroago, Granadan, ingeniari-lantzat har daitezkeen bi lan haiek? Ubide edo akuedokto bat egiteko obrak zuzendu zituen Granadan, beronen hondakinak oraindik ere gelditzen direlarik. Kronikalariak obra bikaina zela adierazten digun klaustro bat ere eraiki zuen.

Beraz, mutikotan ikasitakoak askotarako balio izan zion. Honekin zera esan nahi nuke: Joanez, behar bada, susmatzen zuela bere bizitza ez zela horrelako lanbide batetan emateko. *Ez du haietan gogoia ezartzen.*

Eta hemendik sortzen da galdera: ez ote da hau bizimodua bideratzeko berezko dohain edo kualitateak alferrik galtzea? Bai! Baina Joanez bazituen beste dohain batzu ere eta hauek lantzea beharrezkoago zela uste zuen.

Hala ere, adin hartan, guzti hori ez zuen batere argi ikusiko. Horregatik dira Joan gaztetxoaren erabakiak hain larriak, arriskutsuak.

2. Haren bizitzako beste garai bat (gaztaroa)

19-20 urte inguru zitueneko aldia da; gaztaroa. Ikasketa humanistikoak bukatuak ditu. Eta orain dator benetan ulergaitz egiten zaiguna. Ordena erlijioso bat ere (Jesusen Lagundia, dirudienez) haren ondorik dabil, Joan erakarri nahirik. Ez ahaztu Josulagunetan egin zituela bere ikasketak. Aukera berdingabea zirudien apaiz, erlijioso egin eta literatura eta arterako zituen berezko dohain apartak lantzeko. Baina hark horri ere uko egiten dio. Zergatik? Ba ote daki zer nahi duen?

Beste aldetik Joanez lan egiten zuen ospitaleko apaiz-zuzendariak ere hura du begiz jota: Joanez ikasten jarraitu eta apaiz egin dadila nahi luke, ospitalaren

zuzendaritzan bere ondorengoa izateko. Horrela Joanek, apaiz izanik, bere kualitateak lantzeko aukera ezin hobea zuen, eta haur eta gaisoei lagunduz, kristau bizitza bete-betea egin zezakeen. Bide batez, bere etxeokak eta bere ama alarguna ekonomi egoera larritik, pobretasunetik ateratzeko ere abagunea izango zukeen. Baina hark uko egiten dio! Zergatik? (Geroago, unibertsitateko irakasle izateko eskaerari ere ezetza ematen diola ikusten dugu).

Gauzak tentuz ikusiz gero, ulertezina, ausarta eta arriskutsua dirudi Joanen jarrerak. Baina hark askatasunez erabakitzen du, eta, dirudienez, bakarrik, bere barruko bokazioaz at gainerako ahots eta eragin guztiei entzungor edo uko eginez. Nahitaez garatu beharreko dohain edo balioak somatzen zituen, nonbait, bere barnean. Nondik nora ez zekiela, Jainkoaren gose da, Jainkoarekin aurkitzea, bakardade eta isiltasunean maitatzea du irrikatzen.

Eta dena utziz, ospitaletik irten eta hiriko Karmeldar komentura doa; han Ordenan sartzela eta tontsura eskatzen ditu. Ospitaleko zuzendari zen apaiza, Joanek alde egin zuela ohartu orduko, haren bila hasten da; baita aurkitu ere, baina alferrik. Joan karmeldar jantzia soinean zuela zegoen jadanik. Ez ote da apaiz harekin esker gaiztoko agertzen? Kaskagorra ote da Joan?

Karmeldar egiten da, baina zer dela eta? Nire ustez badira horretarako bi arrazoi: Andra Mariaganako maitasunagatik eta karmeldarren ordena Andra Mariari txit atxekia zelako eta, behar bada, Joanen izaerari ongi zegokion sortaldeko kutsu nabaria zuelako Karmengo Ordenak.

Joanek barruko ahotsari, bere joerei, bere dohainei, barru-barruko bizitzari erantzun nahi die. Etengabeko bilaketa batetan bizi da! Baina oraindik ez du bere gogoaren beteko bizimolderik aurkitu. Aurrera eta aurrera egiten du bilaketa horretan. Eta beste nonbaiten aurkitu uste duenean, aurreko guztia utzi eta harantz abiatzen da.

3. Karmeldar ala kartusiar?

Karmeldar bizitzaren hasieran Joanek filosofia eta teologia buru eta bihotz ikas-teari ekiten dio. Bizimodu latz eta penitentziazkoa egiten du. Alabaina barruko ahotsak diotsona karmeldarren artean betetzea zail ikusten du. Karmelen garai hartan egin ohi zen bizimoduak ez du guztiz betetzen. Bere kualitateak ezin ditu garatu, ez eta nahierarik minenak bete ere. Eta orduan hasten da zalantzaka eta noraezean. Karmengo Ordena utzi eta kartusiarren artean sartzeko burutazioak ere maiz sortzen zaizkio.

Bilaketa larri honetan murgildurik zela, Avilako Teresa ageri da haren bizitzan; biak aurrez aurre daudelarik, Teresak Ordenari hasiera berria emateko asmoa agertzen dio; hau da, Karmengo erlijiosoen berriztapenari ekitea. Teresak, barru-barruko nahiera horiek asetzeko abagunea Ordena berriztatuan bertan izango zuela hitz ematen dio. Hori horrela izanez gero, baldintza bakarra da Joanek jartzen diona: al bait las-terren berriztaketari ekitea.

Hemen argi dagoena honako hau da: Joanentzat Jainkoarekin, hots, irrika biziz



bere zentzu betea lortzen bait zuen. Horren ondoren, bigarren mailan jartzen zuen bere kalitateak garatzea.

Egoera horretan ematen dio hasiera bizikera berriari Karmengo Ordenan; «erreforma» izena eman zitzaion bizikera berriari, alegia. Orduan ez zegoen oraindik gizon egina eta heldua. 25-26 urte zituen. Baina bilaketan aurrera eta aurrera zihoan; hura barneko ahotsaren esanera bizi da bete-betean. Orain bere izpirituaren muin-muinean Jainko-esperientziaren gorengo maila bizi izatea falta zaio.

4. Toledoko gartzelan

Hain zuzen ere Toledoko Karmeldarren komentuko gartzelan aurkitzen du berak gogo biziz irrikatzen zuena: Jainko-esperientzia bakardadean. Berebiziko unea, bizitzako gailurra, unerik erabakiorrena du hura. Gartzelako 9 hilabete horietan gertatu zena, ikuspegi teologiko-mistikotik, benetan misteriotsua izan zela esan behar. Psikologi ikuspegitik gertatu zitzaiona, berriz, miresgarria.

Baina han, Jainkoarekin aurkitu orduko, aproban jarria izan zen. Maitearen ahalmenaren aurrez aurre egoteak heldu-heldu jartzen du Joanengan zegoenik eta garbiena, benetakoena. Aproban jartzen du Joanen bilaketa bera ere.

Gartzela hartan aurkitzen du Joanek, gehienetan ia ohartu gabe, bilatu zuena. Hementxe lortzen du behin eta betiko heldutasuna. Hementxe agertzen zaio argi eta garbi bere barru-barruko bokazioa, baita bere kalitateak aurrera eramateko bidea ere: aurrerantzean Karmengo «Erreforma» haren bizitzako zeregin sakon edo patu bihurtzen da.

Honetaz ondorengo hau izan behar da kontutan: Joan santu edo martiri baten antzera doa gartzelara. Hark Jainkoaren maitasunagatik nahigabeak jasan nahi lituzke. Toledora bidean ihes egiteko aukerarik ere izan zuen, baina ez du egiten. Barneko ahotsaren esanera, gartzelara daramatenen esku uzten du bere burua. Haren adiskideetariko batek ere ez daki non den, lagundu ahal izateko. Gartzelan bere helburua bete du, jasan behar zuena jasan du, heldutasuna lortu du; nahigabeak jasan ditu, baina onuragarri gertatu zaio. Hemen aurkitu ditu bakardade emankorra, barneko otoitz giroa eta pairamena. Haren kalitateetariko batzu bete-betean garatzen dira. Geroago, berriz, zalantzak zartzatzen dio arima; heriotzearen larridurak eta ziurtasunik ezak kolpatzen du garraski; bere buruaz eta berak eta bere lagunek hasitako bizikera berriaz («erreformaz») kezkatzen da biziki. Halako batetan bere helburua betea ikusten du eta gartzelan luzaroago irautea alferrik dela uste du. Bere bizitzan oraindik badela beste egitekorik eta, gehiago gogoetaka aritu gabe, gartzelatik ihes egitea erabakitzen du. Arriskuz beteriko ihesa izan zen, elaberrietan eta agertzen den horien antzekoa.

Hitz gutxitan bil dezagun: hasieran bere dohainak garatu nahi ditu bilaketa horretan; eta ihes egiteko abagunea izan arren, ez du egiten. Baina gero, bere helburua

betea ikusirik, gartzelan luzaroago irautea alferrikoa zela ohartzean, orduan bai, orduan zentzurik ez duen gartzela eta sufrimendutik ihes egiten du!

Beraz, Joanentzat ezinbestekoa, behar-beharrezkoa Jainkoa eta harekin elkartzea da soilik.

5. Bizitzako azken urteak

Bere bokazioa jarraitzeko lehian, ilunpe itsuan badabil ere, Joan barruko deiari hertsiki atxekia dago. Baina bere barneko deiari jarraitzeko ahalegin horretan, ondore onik izan ote zuen bizitzaren azkeneraino?

Joanek, bere bizitzan, hainbat pertsonari lagundu izan die tentuz eta egoki; maite izan ditu benetan, eta ezagutu zuten askok maite izan dute bera ere.


Baina bizitzaren azkenerantz porrot antzeko bat izan zuen, itxuraz behintzat. Guztia gainbehera zetorrela zirudien. Erreformako nagusiekin, agintea eskuratu nahi duten handigurakoekin arazoak ditu. Gizonekin izan zuen ustè ona hautsirik gelditzen da, mindurik eta etsi-etsita dago. Zuzengabekeriaren aurka burrukatzen du Joanek eta, Jainkoaren izenean Karmengo Ordenaren geroa bideratzen zebiltzelakoan, agintegosez ari zirenen aurka. Baina lehi horretan galtzaile gertatu zen.

Bizipen garratz honen ondoren, «Erreformari» ekiteko izan zuen aintzinako lagun zaharrak, Antonio Heredia-k berak ere, bertan behera uzten du, agintean zirenei eder egitearren. 80 urte zituen arren, nagusiekin ongi egotea nahiago zuen. Garai honetan Joanek gizonetik etsipena adierazten du. Haren esaera batzutan tristura, tamala nabari da. Min ematen dio berak hasitako «Erreforma» berriak, zuzendaritza desgokiaren erruz, bere benetako izpiritua galdu izanak. Juzku gaiztoak ere egiten ziren Joanen aurka, berak izpiritu aldetik gidatzen zituen Ana de Peñalosa eta honen alabarekin harreman lizunak zituela salatuz. Alargun honengana joaten zen guztian barrandan edo zelatan egoten zitzaizkion. Gaztelan kapitulu garaia zen. Trantze honetan Amerikara joateko eskaintzen du bere burua, baina hilabete batzu geroago Andaluzian hil zen.

Tristura agertzen du. Egun haietan dei egiten dio Frantzisko, bere anaia onari eta biek gau gozo eta erromantiko bat igarotzen dute komentuko baratzean. Behin adiskide zuen fraide bati, Joan Evangelista-ri, honako hau erantzuten zion gutunez: *«Ez ikaratu kare eta harri artean banabil, haien artean gizonen artean baino nekezago egin bait dezaket behaztopo».*

Nagusiek baztertua eta gorrotodunek jazartua, behin adiskide batekin zebilela, bidegurutzean nondik hartu ez zekiten unetxoan, honela esan zion Joanek: *«goazen hemendik, inor ibili gabeko bidea denez gero, oraindik Jainkoa iraindu duen inortxok ere ez bait du oinik jarri».* Madrileko karmeldar lekaimעי agur egiterakoan, pixka bat gupidaturik, honela diotso moja batek: *«Behin honezkero nora joango da berori!».* Eta Joanek erantzun: *«Oi alaba, harri artean hobeki nago gizonen artean baino».*

Hau itzela, izugarria da! Eta azken egunetako batetan, Ubedan (Andaluzian) hil baino lehenago, fraide bati eskutitz bidez, Jainkoari bere alde otoitz egiteko eskatzen zion



bide batez Bibliako esaldi hura gogoratu: «*Filii matris meae pugnaverunt contra me*».

Haren aurka bala-bala zebiltzan gezur beltzak gorabehera, bere bizitzako azken hilabeteetan zoriontsu eta bakez bizi da, aginterik gabe, komunitate batetan, bakar-dadean eta otoitz-giro gozoan. Dirudenez porrot egin du aginte-gose diren gizon handiputzen artean. Baina porrot egin ote du bere bokazioan, bere ba.ruko dohainak garatze kontuan? Ez horixe! Bilaketa hartan, bokazio hori bideratzeko lehian *ez zen inola ere sartzen gizonetikiko garaipenik*; gutxiago oraindik nagusien onarpen ez-tsurik. Garaipen edo arrakasta bigarren mailako zera da eta gainera ez zegoen haren esku.

III. BILAKETA LUZEAREN EMAITZAK: BOKAZIOA ZERTZEA

Orain arte, bere bokazioaz leial irauteko Joanek izan zuen etengabeko burruka, haren bilaketa zail eta larria gogoratu izan dugu... Bide luze horretan Joanek hartutako erabaki batzuk txunditurik utzi gaituzte, itxuraz ulertezinak, arriskutsuak eta ausartak zirelako...

Honela hain irmeki eta zorrozki bere bokazioaren lortzean doanak, gauzak batere argi ikusi gabe aurrera egiten uenak... zer ondorio lor dezake? Hala ere Joanen gogo bizia, haren helburua ezin genezake ahaztu: aspergabe ari da bere bizitzari zentzu betea emango dion erdigunearen bila, Jainkoaren bila. Gainerakoa bigarren mailakoa da harentzat eta, beraz, ez du gogoia haietan oso-osoa murgiltzerik merezi.

Bilaketa honen eta bere bokazioaren lortzean aurrera egite honen fruituak harrigarriak dira. Mezu hori egungo gizakiarentzat oso egoki dator, qualitate batzu garatu beharrenden garatu beharrez, bere burua hondatu egiten bait du sarritan.

Bokazioari jarraitzean aurkitu zuen berak hain gogotik bilatzen zuena, bere bizitza osoko helburua: Jainkoa, Jainkoaren bizipena bere izatearen erdian. Erdigune horretatik hedatzen zen haren eragina pertsona osora bere qualitateen arabera. Erdigune horren bila, hain maite zuen Jainkoaren bila eman zuen bizitza. Barruko ahotsak gidatzen zuen bere Maitearengana. Eta aurkitu ondoren, hartaz gozatu eta gizakiei erakutsi ere egin zien.

Gauzak honela, azter dezagun nola garatu zituen berezko qualitateak, kasu batzutan uko egin ziela ikusi bait dugu. Haren ustez, qualitate bat ez da bizitza osoa hura garatzen emateko, qualitate horren mende eta hark ematen duenetik bizi izateko. Joanentzat bigarren mailakoa bigarren mailako da; eta lehen mailakoa, behar-beha-

rezkoa, Jainkoarekin aurkitzea. Hura da gure bizitzaren muina eta gure lan, ahalegin eta ardura guztiak merezi dituena.

Baina harrigarriena zera da: Joanen dohainak, kalitateak garatuak izan zirela eta emaitza bikainak eman zituztela:

Joan ez zen bizi izan literaturari emana; olerkigintza ez zuen bere lanbidetzat, ezta artegintza ere; hala ere hartara oso-osoan jarri gabe, bide batez, poesia lirikoaren gailurra jo zuen eta gaztelaniazko literaturaren maisu eta klasiko bihurtu zitzaigun. Marrazki arloan, «txoriaren perspektiba» sortu zuen; ingienaritza-lan batzu ere burutu zituen... Baina guzti hauek bigarren mailakoak eta bidenabar egindakoak ziren haren-tzat. Berezko gaitasun eta kalitateen fruitu ziren, baina guztia erdigunetik irradiatua, Jainkoa bait zuen Joanez bizi-eragile eta gaitasun guztien zuzpertzat.

Teologia eta filosofia irakasten ere ez zen beren-beregi aritu, ezta haietaz idazten ere, alabaina haren idazkietan filosofo eta teologo bikain baten emaitzak nabari dira...

Egia esan, Jainkoak lan ditzagun ematen dizkigu kalitateak edo gaitasunak eta Joanez horixe egiten du, guzti horren fruituak gizajendeari eskainiz; baina hori bigarren mailakotzat du; garrantzitsuena, hots, barruko ahotsak eskatzen ziona bere Maitearekin, Jainko Biziarekin, guztia biziberritzen duen Jaunarekin aurkitzea bait du.

JULEN URKIZA - LUIS BARAIAZARRA
Zornotza-Larrea - Markina

SAN JUAN DE LA CRUZ, FORJANDO SU PROPIA VOCACION

(Voz interior y realización de sus cualidades personales)

Hemos visto a un hombre forjando su propia vocación, siguiendo un camino sorprendente, tomando decisiones arriesgadísimas y aparentemente ilógicas en las encrucijadas de ese camino. Juan es el hombre de la búsqueda, del seguimiento a su voz interior, que le impulsa a algo desconocido: él busca la verdad, el centro y sentido de su vida, su Amado, desea el encuentro con Dios. Y en este camino no se *detendrá* a desarrollar algunas de sus cualidades humanas o a explotarlas... Goza de una extraña libertad en esta búsqueda... Y cuando encuentra su Amado, él se expresará con todas sus cualidades, dando excelentes frutos como poeta, artista, teólogo, filósofo-pen-

sador... Pero todo para decir que vale la pena esta búsqueda, que su centro, centro y sentido de su ser y vida, es ese Amado, es el encuentro con Cristo, vivificador del ser humano.

Juan es el *hombre de la búsqueda* para el hombre de hoy, tan angustiado por la falta de identidad y sentido.

SAINT JEAN DE LA CROIX, FORGEANT SA PROPRE VOCATION

(Voix intérieure et réalisation de ses qualités personnelles)

Nous avons vu un homme forgeant sa propre vocation, en suivant un chemin surprenante, et, aux carrefours de ce chemin, prenant des décisions hautement risquées et apparemment illogiques. Jean, c'est l'homme de la recherche, de la marche à la suite de cette voix intérieure qui le pousse à quelque chose d'inconnu: il cherche la vérité, le centre et le sens de sa vie, son Bien-Aimé: il désire la rencontre de Dieu. Et dans ce chemin il ne s'arrêtera pas à développer quelques-unes de ses qualités humaines ou à les exploiter... Il jouit d'une étrange liberté dans cette recherche... Et lorsqu'il rencontre son Bien-Aimé, il s'exprime avec toutes ses qualités, donnant d'excellents fruits en tant que poète, artiste, théologien, philosophe-penseur... Mais tout cela pour dire que cette recherche en vaut la peine, que son centre, centre et sens de son être et de sa vie, c'est ce Bien-Aimé, c'est la rencontre avec le Christ, vivificateur de l'être humain. Jean, c'est *l'homme de la recherche* pour l'homme d'aujourd'hui, si angoissé par manque d'identité et de sens.